

LIBURUAK

«Juantxo Txiki»

Bein baño geiagotan ZERUKO ARGIA irakurtzen asita, zekarzkin idatzi artean Anes Laskau'ren "Juantxo txiki" atalaren bila ibilli izan naiz...

Gaur egunean, erderazko aldizkari on guztiak, kezkatuta, bein-da-berrero debiliten gaia; umeak nola aza ta nola ezi gurasoak irakatsia. Euskeraz ez anbeste. Egia esan, non erabilia ez degu ain oparo-ota.

Anes Laskau'kok arkitu zuan Z. A.'an tartexo egoki bat, eta bertatik atsegindu gaitu eman ditun irakatsi eder, garrantzi berezidunakin.

Itz gutxitan asko esaten jakintsu aundia degu apaiz jaun au, bere irakatsiak egundo aspergarri egin gabe; aspergarri ez eze, atsegingarri eginaz. Onela izan zaizkigu Z. A.'an, edo izan zaigu "JUANTXO TXIKI" atala.

Gaur liburu polit baten ematen dizkigu atal oiek txukun-txukun bilduta. Egite bearezkoa: ba, liburu onak euskal liburu artean utsiune aundi bat beteko du. Ongi urtua bedi ba, euskal-irakurle artean, batez ere guraso artean, eurentzat egia da-ta.

Gaur egunean "Juantxo Txiki"ren ama diranai ez die beste batzuk trabaziko umea osasuntsu aitzeko behar diran ardurak artzen. Baña... Anes Laskau'kok dion bezela, Juantxo'k ez du soñia bakarrik, ez du gorputza bakarrik, badiu gogoia edo unima ere, bizia ta izakera emango dizkion gogoia ere, eta izakera ori ezitzen jakitea ama guzien jakin-behar aundia.

Ama bakoitzaren umeak dira "JUANTXO TXIKI", aita-ama bakoitzaren: baña amaren ardurapean oi da geiten bat Juantxo'k txiki dan artean; eta gogoia ez esaten diegu ama diran eta izango diran emakume gazteai, urru, ez ditzeela gelditu liburu ontan jakin bearreko zaizkien antbut gurea ikasi gabe.

Ezin dezutela euskera irakurri? Zaill arkitzen dezutela euskera irakurtzea? Ez ordea "JUANTXO TXIKI" irakurtzea, ez zaitute zaill egngio.

Anes Laskau'k euskera garbi, argi, ta errega darabil, Bein irakurtzen jarri ezkerre, eskutik utziko ez dezuten liburua da "JUANTXO TXIKI".

Bestetik, zer onti atera dezazekute astean-astean anbeste diru eramanen dizueten aldizkari txoro, aundikien arrokeriak, eta artista eskontza-asteak eta beste nabarmenkeriak besterik azaltzen ez dizkituzten irakurgai katelgari oiek?

Zuen umeak dira geroko gizonak, geroko umak, geroko emakumeak. Mundu oheago bat egin nai badugu, gu, bakoitzogandik asi bear gera, bakoitzak bear du orretarako lan egia. Eta zer garrantzi aundiagoko lanik umeak ondo aza ta ezitzea baño?

TENE

UMEEN BIBLIA

Jalme Kerexeta Apaiza ez dago alperrean geldi. Amar azken urte auztan 13 liburu edo argitaratu ditu bizkaiko euskeran...

Elorrio'n, bere etxeanen goiko gelan, goizetik gabeaifio, ekin ta ekin iri da, beste izkuntzetan azaldu diran libururik ederrenak euskeratzen.

Bere eskutatik atera dan azkenengo lana «Umeen Biblia» izan da. Liburu txikia (64 orrialde), baña apaña, errega eta gainera 42 irudiz ederez apaindua. Edergarri guztiak 9 koloretan egiñak dira, ume eta nagusi begientzat atsegingarri.

«Umeen Biblia» su, lenbiziko aldiz Alemania'n agertu zan, eta gero 12 izkuntzetara itzulita izan da. Mundu zabalean 10.000.000 ale baino geiago saldu dira.

Orain euskeraz ere irakurri dezakegu, offset paper ederrean irarrita eta plastikatzeko azal finarekin ornituta. Zazpi urtetik amar urteko aurrentzat liburu au oso egokila dala arkitzen det. Gure katekisia eta ikastoletan ez luke falta bear.

Kerexeta Jaunak bizkaieraz jarri du eta Zugasti Apaizak gipuzkeratu. Beraz bizkaieraz eta gipuzkoeraz azaldu da. Noiz agertuko ote Lapurdiko euskeran? Eta... noiz euskera batuan? Gudiak joanean bidea irikitzeko... Baña gaur egunean gurdian ez gera ibiltzen, kotxean baizik... Baña ere kotxean azkarregi ibilteak bazterra jotoke arrixkua ba du.

GOIKOETXEARTAN IRAKI

Lo vasco en Pio Baroja

ELOY LUIS PLACER

Urrundik datorkigu liburu au, Buenos Aires'ko EKIN da argitaldu duena. Egia esan, txalagari benetan etxe argitaldian onen bere biziko euskal gaietaz eman digun orain-arteko liburu-morдохka.

Orain-oraino onak badu gure kulturari damioiekn arnasa. Bera'tar idazle, mundu zear ezaganak, euskal leirik bai ote zun? Zer jaso bere anbeste liburuetan euskal gai ta erriko bertso-kantak erabili zituen ezker?

Alda batetik, egilleak argi asko dionez saio ontan, buru bete beteanean zekun D. Plok euskeraren gauzeza burutapen saxonik adierazteko, eta berz it zorian larri zegonez, berenak egin zezala. Izan ere, or nunbait etzian eskurik luzatuko Unamuno jaunari; ontan ordea elkar zearo ustzari jokatu zuten. Biek, errudun jakiniaz, jatorrizko izkuntza kutxan gordete itlzen izateko bat etorri. Lur-emalle bikainak!

Ala ere, gerok esan dezan "erri bat izan zan" edo, bere liburuak txukun apaindu izan nai zitun D. Plok, euskal kutsuaz, euskeraren ondukiñak an-emen eranasiatuz eta gure erri gizonen joan etorriak aipatuaz; berak asmatuak, alegia. Ontan jator jokatu zuen. Orreगतik atseginez irakurtzen dan liburu Placer jaunarena.

Besteak beste, D. Plok etzan samutu ere, erriak bere sustraletan duen indar bizi bere izkuntza pizteko. Zorionez, munduan diran buru argienak ez diardute berdin, eta erria ari zaigu argia edonun zabaltzen.

A. Z.

1969 "Toribio Alzaga" Teatru'sari-aren oinharriak

Bizkaiko Ahorro-Kaxak hamar mila pezetako sari bat sortua du Euskaltzaindiari lagunduz «Toribio Alzaga»-ren izenean. Sariaren oinharriak hauek dira:

a) Gaita nahi dan bezelakoa izan ditek, eta, lanak, norberak egina izan behar du eta ez beste hizkuntza batetik itzulita.

b) Luzapeneraren neurria libre uzten da. Ikribuak makinaz idatzita behar dira, alde bakar batekita eta lerro-une bat utzirik, folio tamaniuzko horrian (31'50 x 22 gutxi gora behera).

c) Sari bakar bat baizik ezta izango, zortzi mila pezetakoa eta zaitu ezina.

d) Saria, gabe gelditu ditek egoki iruditzen bezaio mahaiburu-koai.

e) Mahaiburua, Euskaltzaindiak izendatuko du lanak biartzeko opea baturik ondoan.

f) Lanak Euskaltzaindiara bialdu behar dira (Ribera, 6 - Bilbao-5) 1969-ko Urriaren 10-rako baino lehen. Lema batekin firmatu behar dira, eta lemarren giltza sobre itxi batean bialdu behar da.

«T. ALZAGA» HAURRENDAKO SARIKETAN ERAUDIA

7 urtetik gorakoentzat

1.—Haurrentzat antzerkia idazteko galaran kontuan eduki beharko dira: 7 urtetik gorakoentzat dala; esan nahia garbi adieraztea; azale mugimendu handia ematea alkar-hizketa alai ta erreen bidez; aldakuntza-asko medioetan; soluzio garbiak; pertsonajeak naturalak izan ditezela, ez batere oker eta zalak; irudimenari trabarik ez jarzea, kantu ta musika beharrezkoak dituzela.

2.—Antzerki hauek zazpi urtetik gorako haurrentzat diranez, jende nagusia izan beharko du antzezleri.

3.—Hogei, hogeitamar bat minutu irau beharko dute.

4.—Antzerki bakoitzetik hiru kopia bialdi beharko dira, Urriaren 31-rako, korreo zertifikaduan, Academia de la Lengua Vasca, Rivera, 6 - BILBAO-5'ra.

5.—Sariak Euskaltzaindiaren urteko azkenengo bilera banatuko dira.

6.—Saria: 10.000 pezeta antzerkikirik homerenari.

7.—Araudi honatik aparteko prolemarik sortuko balitz, mahain-burukoen esku uzten da hura erabakitzea.

1969 URTEKO «AGORA» SARIAK

Berandutxo gabiltza sari auen beiri ematen. Azken urte auztan, «Gipuzkoako Sariak» izenez, leikate jakingarriak egiñak izan dira, erderazko ta euskerazko lanel egotziak.

Agorrillaren 22 garrenean eta «Co-fradia de Gastronomiako» artean jakinarazi ziran aurtengo sarien irabazleak. Ez lutzeteko, or dijoaz, laburki lan eta irabazleen izenak: EUSKERAZKO LANAK

Antzerki-Saria, erdibana irabazi dute, Estanislao Urruzola, tolosarra eta Ori'ko Alegiar Ignazio Begiristai'ek. Lenengoak «Erreko-duan» izeneko antzerkiarengatik; eta bigarrenak, «Bizia bizi-truk» izenekoarengatik.

Olerri-saria, Eusebio Erkiaga lekeitiarrari eman diote, bere «Aritz jeltiklan» izeneko olerkiarengatik.

Sari auek ez tute bear aifnako zabal-kunderik izan eta or gelditu bear zuten ezjakinean, euskeraren kaltean eta inoren protxurik gabe. Berandutxo izan arren, ez tiftugu bazartu izan nai beiri on auek.

Euskaldunentzat bakarrik

Euskal kezka, euskal-kulturaren kezka dugu zu bezela, ta nolabait ar-rerakada bat eman nahiean zure gana jotzen dugu, elkarrekin joanaz zerbat lortu dezakegunaren uestean.

Mila aldiriz entzuna gaitik, ez gatoz bat zenbait jendeak diorekin, alegia, euskal idazterik ez dela, euskal irakurlek ez dela. Bada beste irtenbiderik gabeko eztabaida: ez dut irakurtzen, funtsozko ezertxo ere ez bada arkitzen euskeraz, edo, ez dut idazteko zelaetanusik ez bada irakurlek.

Gauzak onela dirala ez degu inoizlaurrera egingo, goazen beraz soluzio bat ematera. Ona hemen gure asmoak:

- 1) «Irakurle» Sail bat batu, idazle ta argitaldariari bultzatu, irakurleen eskutara zer nahi idazki eldu ditzen.
2) Argitara ta zabalduko diran lan guztiak, EUSKERAZ BAKARRIK izango dira.
3) Liburu bakoitza argitaratzean ondo goaon izango dugu gure kulturaren alde izatea; burruka ortara lotuko gera.
4) Liburu hauek «txukun» argitaratuko dira, bainan ez batere «lujo» gisan. Praktikoak izan ditezten saiatuko gera, ta ez liburutegietako apaingarri bakarrik.
5) Irakurle talde hau osatuaz, beste alde, liburuekin sortzen dan kexa bat ere baztertuko dugu, prezioak, salneurriak jeixtea. Ziur izan zaitzete preziorik onenean eskuratuko dituzutela.
6) Aurrez ez da inoiz zentimorik kobratuko, liburuak eskuratu ondoren balzik.
7) Iraun bide bat izan dezan, «Irakurle Saila» osatzen dutenak, onharizen duten gauza da, iflerro 60 pezetaren barruan sartuko diran liburuak jasotzeko prest daudela. Honek ez du esan nahi liburu guzitari, txiki edo aundi, prezio berdina emango zaienik, baizik eta, illean ez dela geiago ordaindu behar izango.
8) Sortu nahi dugun «Irakurle Sail» hau osatzeko, gutxienez behar diren ainbat jende (salneurriak egokia izan dedin) beren izena ez ba dute ematen, baiezkoa eman duten jaun guzitari, eskutiz baten bidez gertatuaren berri emango zaiote.
9) Behar ainbat jende osatzen bada, udazkenean ekingo litzake liburu zabalzatearekin.

Euskaldun eta euskeraren alde dan berri au inguruta zaigunez, ZERUKO ARGIA ren irakurle guzitari agortzen dugun asmo hau. Bat egin nahi duten guzietan beren izenak emanaz, ara nora zuzendu behar duten: Iñaki Beabido, Iparragirre, 20. Donostian. «Irakurle Sail» honetaz maiz itzegin beharra eduki-kitzea besterik ez genduke nahi.



1.896 1.969 GIPUZKOA'KO PROBINTZI - ERATETXEA (Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa)

Zure diru bearretan gure «PRESTAMEN SERBITZARITZA»z (Servicio de Préstamos) bialia zaitze

Zure baserria erosteko edo obetzeko Zure Arrantz-Ontzia erosteko edo obetzeko Aberea —azienda— erosteko edo obetzeko Baratzeko fruituak obetzeko lakindean jarri zaitze Donostia'ko gure 12 ofizinetan eta Probintziako 63 sukursaletan

ETXKO-ANDRE; IRAUN ARAZI ZURE ARROPEI ONOKO JABOI ONEKIN;

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten ba' dezue ATOMIZADO LAGARTO — Jabola erabili beti Eskuz ba'zabiltz, LAGARTO — Jabola bear dezu erosi JABON LAGARTO, garbiketarako jabot bakarra Etxeko-andrearentzat noskamerik egokiena.

JABON LAGARTO!



Gipuzkoa'ko ta Neparroa'ko esne onenakin gertatutako esnekiak: — Esne Pasturizatua — Esne soilla (esterilizatua) — Esne autsa — Esne-galifa — Gurifa — Yogur — Batidusk

Igara suzioa - Apart. 213 - Urrut. 29060 (lau ari) — DONOSTIA

ESTABLECIMIENTOS FERRETERIA ELECTRODOMESTICOS RAILITE ayestaran BURNI - SALGAIK URBIAETA, 25 ETXERAKO ELEKTRO-TRESNAK URBIAETA, 27 - Isabel II, 2 LEGEZKO ZABALTXAILLEA ALDAKONEA, 4 Urrutizkiñak: 4300 ta 26787